

## POLIZI OPERAZIOA ZUMARRAGAN ETA URRETXUN

# Ustezko hiru etakidek ihes egin, eta zazpi lagun atxilotu ditu Poliziak

**ATXILOTUAK.** Ihes egin zuten uestezko etakideen «laguntzaile» direla esan du Espainiako Poliziak

**HIRU ASKE.** Zazpi horietatik hiru, ihes egindako baten neba-arrebak, atzo gauean askatu zituzten

**MIAKETAK.** Poliziak dinamita eta hiru pistola aurkitu bide ditu Zumarragan eta Urretxun eginiko miaketetan /6-7

## EAE-KO AURREKONTUAK



DAVID AGUILAR / EFE

Eusko Legebiltzarreko presidentea Juan Maria Atutxa, atzo, osoko bilkura bertan behera geratu ostean.

## Quorumik gabe berriro ere

Ibarretxe alderdi politiko guztiekin bilduko da bihar, etziko osoko bilkura ahalbidetzeko

Eusko Legebiltzarreko presidentea Juan Maria Atutxak etziko deitu du aurrekontuen gaineko osoko bilkurara, atzo berriro bertan behera geratu eta gero. Oposizio alderdiak ez ziren agertu atzoko saiora, eta, ondorioz, bilera egiteko quorumik ez zen lortu. «Boikot» hori gainditzeko asmoz, EAEko lehendakari Juan Jose Ibarretxe alderdi guztiekin bilduko da bihar. Ibarretxek talde parlamentarioei helarazi dien oharrean PSE-ren aldeko apustua azaltzen da. /8-9

## KARGUDUN BERRIAK BBVA-N

### BBVA Francisco Gonzalezen esku geratu da, Emilio Ibarrek eta Pedro Luis Uriartek kargua utzi ondoren

Jose Ignacio Goirigolzarri bilbotarra izango da banketxekeko kontseilari-ordezkaria /20

## ELKARRIZKETA

**MARIA JESUS ARANDA**  
Nafarroako arartekoa

«Gizarte arazoengatik inguruan duela hainbat urte baino itsuagoak gara orain» /13



## GERRA AFGANISTANEN

Gerra hedatzeko NBERen baimenik ez dutela behar esan dute Estatu Batuek NATOren bileran

Yemengo Armadak Al Kaedako uestezko kideak atxilotzeko egin dako operazioan hamabi lagun hil ziren atzo. Washingtonen arabera, Al Kaedak entrenamendu eremuak ditu Yemenen. /24-25